

GAZTE ERAKUNDE SOZIALAK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEAN

. WEBINARRA - TAILERRA:

ERREALITATE BERRI BAT EZAGUTZEN ETA
KONFLUENTZIARAKO BIDEAK BILATZEN.



Maiatzak 20
18etik 19:30etara



Aurkezpena

[“Barometroa 2019. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko 2014-2019 aldiko antolakuntzen datu nagusiak”](#) txostenean jasotako datuen arabera, 5 urte horietan, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala nabarmen hazi zela adieraz dezakegu. Egia da datuak pandemia aurrekoak direla eta, seguru asko, testuinguru berri honekin lotuta, sektorearen osaeran aldaketa batzuk gertatuko zirela. Dena den, gure ustez, datuek joera gorakorra dute eta hori azken azterlanetan ikusi ahal izan dugu.

Txostenak, gainera, **bost urte baino gutxiago dituzten , erakunde gazteen** errealitatea erakusten du. Hain zuzen ere, gure ustez kontuan hartu beharrekoa da errealitate hori bi arrazoi direla eta: **aurreko barometroarekin alderatuta, % 6,6ko igoera izan dute** eta, bestetik, **sektoreko erakunde guztiekin alderatuta, % 20 biltzen dute**. Nolabait, datuek berrizemekanismo hori “bizkortzen” ari dela erakusten digute. Hala, sektorera erakunde berrien kopuru handiagoa ari da gehitzen Euskadi mailan zein, ikerketetan ikus daitezkeen moduan, Estatu mailan.

Errealitate berri horri erantzun ahal izateko, garrantzitsua iruditzen zaigu haien parte-hartzearekin errealitate hori landu ahal izateko laneko gune bat planteatu ahal izatea. Helburu hauek izango ditugu:

- **Errealitate espezifikokoaren ezagutza zabaltzea.** Geure buruari galdetzea zein diren ekimen gisa sortzeko arrazoiak, zein izan den urteotan izan duen ibilbidea, zein diren beharrak, zailtasunak, identitate kolektiboarekiko identifikazio maila eta sektorearen baliok.
- **Proposamenak partekatzeko eta elkar ezagutzeko dinamikak sortzeko** eta zailtasun espezifikoei aurre egiteko lagungarriak izan daitezkeen dinamikak sortzen lagun dezaketen proposamenak bilatzeko gunea bultzatzea.

- **Sareen Sareak, sareen sarearen ordezkari eta behatoki gisa, gerturatzeko eta sektorea aitortzeko** gunea sustatzea errealitate berri honekin lotuta laguntza emateko esparru gisa eta, bide batez, ezagutza eta kontrastea eskaintzea.

Metodologia

Ezaugarri komunei buruzko elkarrizketa bidez gazteen erakundeen arteko topaketa planteatu dugu. Galdera horiek berak abiapuntutzat hartuta, elkar aurkeztu ahal izateko onlineko topaketarako gunea.

- **Erakunde berriak sortzeko arrazoiak.**
 - Zerk bultzatu zintuzten zuen proiektua sortzera?
 - Zuen ustez, zergatik ari dira sektorean erakunde berriak sortzen? Prozesu naturala da? Beste erakunde edo elkarte batzuek detektatu ez dituzten behar berriei erantzuten diegu? Antolaketa modu ezberdin batekin lotura handiagoa du? Ideologia berriei lotuta dago? Ekiteko desioarekin lotuta dago? Erakunde batzuetatik atera gara eta ordura arte ematen ez ziren erantzunak ematen saiatu gara...?
 - Zer esparrutatik zentozten? (Herritarren erakundeak, eliza, mugimendu soziala, enpresa-mundua, prestakuntza esparruak, ekintzailletza esparruak, esparru sozialeko prestakuntza...).
- **Hirugarren sektore sozialarekiko harremanak**
 - Zer lotura zenuten aurretik Euskadiko hirugarren sektore sozialarekin?
 - Oro har sektoreari buruzko zer ezagutza duzue? Eta erakunde ugarien inguruan zehazki?
 - Sektore horretako kide sentitzen al zarete? Zer dinamikatan hartzen duzue parte? Zer harreman duzue beste erakunde batzuekin?
 - Zer ekarpen egin diezaiokezue elkarte gisa sektoreari zuen proposamen berriekin?
 - Zein da sartu zareten sektore horren inguruan duzuen iritzia? Zein dira zuen ustez zuen ezaugarri nagusiak? Zein dira zuen gabezia nagusiak?
 - Hirugarren sektore sozial honetako kide gisa, zuen iritzia aintzat hartzen dutela uste al duzue eta identifikatuta sentitzen al zarete?
- **Bilakaera, erakunde gisa. Zailtasunak, erronkak eta beharrak.**
 - Nolakoa izan da urte hauetan guztietan zuen garapena? Zein izan dira zuen lorpen eta aurrerapen nagusiak?
 - Zein izan dira zuen zailtasun nagusiak?
 - Zein izanda ibilbide luzeagoko beste erakunde batzuekin alderatuta, zuek egindako ekarpen nagusia?
 - Sektoreko beste erakunde batzuek edo sareek zer eman diezazuketela uste duzue edo zer beharko zenukete?

Bigarren une batean, ekimen mota horien indar, zailtasun eta behar nagusiak identifikatu ahal izateko gunea planteatu genuen. Identifikazio hori abiapuntutzat hartuta, elkarrekin proposamenak sortzeko, edo sektoreko esparru ugarien bidez laguntza edo babesa topatzeko zer aukera egon zitekeen ere planteatu genuen. Puntu honetan, garrantzitsua izango da hirugarren sektore sozialaren egituratik aukerak bistara ditzaketen sare batzuek parte hartzea.

Behatokitik, informazio guztia jaso eta gero itzuli ahal izateko prestatzen dugu.

Nori zuzenduta dago tailerra?

Tailerra Hirugarren Sektore Sozialeko **erakunde gazteei** zuzenduta dago. Erakunde gazteak dira **2014tik aurrera sortutakoak**. Gaiarekiko interesa duten **Hirugarren Sektore Sozialeko sareei** ere irekita dago.

Izen-emateak

Izena emateko, esteka honen bidez egin dezakezu: <https://forms.gle/HPi7fZTg4BF5Yy2D6>